


## Erromatarrek egutegiak erabiltzen zituzten?

zer nola  
nork  
?



Erantzuna:

### José Guíjarro

Historia erre kreatzailea. Merida

Aurrean daukagun egutegia Trajanoren termetako parapegma deitzen da, eta bere izenak esaten duen bezala Trajanoren termetan aurkitu zen, Erroman. Oso pieza interesgarria da, desagertu egin zelako. Erroman erreprodukzio bat dago, eta guk erreprodukzio horren zabalkuntza eta birsortzea egiten dugu.

Bitxia da, erreproduzituta dagoena, begi bistaz ikusi ditzakegun planetak direla: Saturno, Marte, Merkurio, Jupiter eta Artizarra. Planeta hauek, greziarrek jada ezagutzen zituzten, eta zero-gangan mugitzen zirela bazekiten, horrez gain eguzkia eta ilargia.

Baita ere, egunak eta hilabeteak agertzen ziren, eta horrekin batera zodiakoaren irudikapen bat dago. Haientzat jainkorik garrantzitsuena Saturno zen, bertan bere atributuekin irudikatua ikusi dezakeguna. Eguneko lehen orduak esleituta zituelako, jainko hori babeslea kontsideratzen zen, eta beraz garrantzitsuena.



Horrez gain, asteko egun horietatik lehena zenez eta hastearen hasiera markatzen zuenez oso garrantzitsua bilakatu zen, kasu honetan Saturno.

## Erromatarrek egutegiak erabiltzen zituzten?



Gaztelaniaz sábadó esaten da, honek juduen eraginagatik da, sabad hitzetik badator. Ingalaterran aldiz, saturnoren eguna esaten jarraitzen da, hau da "Saturday" Saturnoren eguna esan nahi du. Jarraian, eguzkiaren eguna dator, gaztelaniaz "domingo" esaten da eta kristandadearen eragina izan zuen, jainkoaren egunari deritzona. Baina, Ingalaterran eguzkiaren eguna bezala izendatzen da. Ondoren ilar-giaren eguna zetorren, gure astelehena, alemaniarrez berriz "Montag" deitzen diote. Baita ere, Iovis diez, Jupiterren eguna eta veneris dies artizarraren (Benus) eguna agertzen dira.

Ondoren, egunak eta hilabeteak datoz, hilaren batetik hogeita hamarrera, ilargi egutegia zela uste baitzen. Gai bitxi gisa, I. mendean oikoak ziren lau makilatxoak ageri dira. Gainera, greziarrengandik jasotako zodiakoa ezagutzen zuten. Honen bitartez badakigu, gaur adibidez, Saturnoren eguna dela, 12. egunean daudela eta badakigu eguzkia kanzer konstelazioan dagoela. Eguzkia konstelazioekin batera Aurrera egiten dugu, hori dela eta egunez ez dugu konstelazioa ikusiko, eta iluntzean ikusiko dugun lehen konstelazioa leo izango da, eta egunsentian ikusiko den azken konstelazioa geminis izango da, kasu honetan.

